

ALDAMIN (1.373m)



Gorbeatik ateratako argazkia. Hurbilean daukagun tontorra Aldamin bera da.

Gorbeako tontorretik iparralderantz begiratzuz gero garaiera gutxiago duen kareharrizko tontor bat ikusiko dugu. Mendi horren izena Aldamin da. Oro har mendizale gehienek Gorbeara jotzen dute Aldamin albo batean utziz. Hala ere, ikuspegi ederrak dituen tontor hori egitea gomendatzen dugu. Gorbeatik ikusita mendi xumea dela dirudi baina Zeanuri herritik ikusita ikuspegia zeharo aldatzen da, izan ere, iparraldeko horma oso malkartsua da eta soilik eskalatzen heldu daiteke.

Garai batean ingurua artzainez inguratuta zegoen, oraindik ere artzainen txabolak ikus daitezke. Aldamineko ipar isurian badira batzuk, Aldaminape deituriko larre ederrean, kareharrizko mendi ikusgarri hori altxatzen den gunean hain zuzen ere. Gaur egun, ordea, lanbide horrek beherantz egin du eta inguru horretan artzain gutxiren bat gelditzen da.

IBILALDIAREN XEHETASUNAK:



Barazarreko portutik gertu dagoen Saldropo hezegunetik irtengo gara. Mendebaldean, urruti xamar Gorbeako gurutzea ikusi ahalko dugu eta parez pare horma bertikala duen tontorra ikusiko dugu, horixe bera Aldamin da. Bertara heltzeko lehenik eta behi Atxurira heldu beharko gara, aintzinako GR markak hala nola jarraituz (marka asko desagertu dira). Atxuritik Arimekortara heldu beharko gara, gero Aldaminapetik gertu dauden txaboletara heltzeko, azkenik Aldaminostetik Gorbea eta Aldaminen arteko tontorrera helduko gara, 10 minututan Aldaminera heltzeko. Beheko aldean ibilbide orria daukazue, hala ere, ibilbide hau egiteko mapekin esperientzia izatea eskatzen da edo GPSa eramatea gomendatzen dizuegu.

OHARRA: Ibilbidea eguraldi onarekin eta behe laino barik egitea gomendatzen dugu.

INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- **Luzeera:** 12,7 km.
- **Iraupena:** 5 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 950 m.
- **Zailtasun teknikoa:** Erdikoa. Maparen erabileraren ezagutza izatea edo GPS eramatea eskatzen da.
- **Zailtasun fisikoa:** Altua. Aldapa gogorak daude, proposatutako gainontzeko ibilbideekin konparatuz gogorra da.

IBILBIDEAREN IRUDIAK:



IBILBIDE ORRIA

Irteera: Aldamin.	Mendilerroa: Gorbea	Data:
--------------------------	----------------------------	--------------

	Lekua	Norabidea	Deskribapena
1	Saldropo	N220E	Saldropoko parkingetik irtengo gara. Komunen paretik pasatu eta jarraian bidegurutze bat ikusiko dugu, bertan Parke Naturalean sartzen garen panela eta seinale bertikala ikusiko ditugu. Atxuri jartzen duen norabidea hartu.
2	Interpretazio gunea	N160E	Publikoarentzat zabalik dagoen eraikin baten aurrean parking bat ikusiko dugu. Bidegurutzean seinale bertikala dago, behearantz doan eskumako bidetik joan Atxuri jartzen duen norabidean.
3	Bidegurutzea	N210E	Hormigoizko pista harrizko pista bihurtu eta gutxira ezkerreko pistatik joan.
4	Bidegurutzea	N240E	Pinudian sartu eta jarraian ezkerreko bidea hartuko dugu. Norabidea hartuz desbideratu barik gorantz egingo dugu.
5	Pista	N230E	Gorantza goazela pista batekin topo egingo dugu. Ezkerrera gorantz egiten duen bidean marka gorri eta zuriak ikusiko ditugu.
6	Seinale bertikala	N230E	Aldapa igo eta gero bidea leuntzen den lekuan bidegurutzea izango dugu. Marka gorriak eta zuriak jarraitu. Bidezidorretik zuzen gora egingo dugu.
7	Pista	N270E	Pistarekin topo egingo dugu. Pista gurutzatu eta zuzen gorantz egingo dugu. Laster pista zabala amaituko da eta bidezidor bihurtuko da. Gorantza doan bidea hartu beharko dugu, Atxurira hain zuzen ere.
8	Seinale bertikala	N300E	Atxuriko pasabidea igaro eta gero metro batzuk gora egingo ditugu eta lautada zabal batera helduko gara. Seinale bertikalean Aldaminape jartzen duen norabidea hartu. Oraindik urrunean Aldamin tontorraren azpian txabola batzuk ikusiko ditugu, bertara heldu behar gara.
9	Lexaeta txabola	N270E	Amildegitik paralelo joanda pinudi baten albotik pasatu eta gero leiho gorriak dituen txabola batera helduko gara. Atearen aurretik pasatu eta bidezidorra jarraitu. Metro gutxi batzuetara pista batekin elkar egingo dugu eta eskumarantz eta gora desbideratu.

10	Arimekorta	N240E	Pistatik gora heltzen garenean ezkerrera joko dugu aterpe handiak dauden lekurantz.
11	Aterpeak	N230E	Pistatik gora aterpe handietara heltzean bidegurutzea izango dugu. Bidezidorretik leiho gorriak dituen aterperantz zuzen egingo dugu. Hortik aurrera ez dugu erreferentzia handirik izango, bidezidorretik irten barik gora Aldaminostera joango gara, alegia, Aldamineko atzeko aldera.
12	Aldamineko lepoa	N20E	Gorbea eta Aldaminen arteko lepora helduko gara, ezkerrera Gorbeara doan bidea utzi eta eskumara joko dugu. Harrien artetik 10 minututan tontorrean egongo gara.
13	Tontorra	N240E	Igo dugun lekutik jaitsiko dugu. Punturik txarrena 6. puntua bilatzea izango da. Eguraldi onarekin eta behe laino barik egitea aholkatzen dugu.